



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2020KO URTARRILAREN 29AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2020ko urtarrilaren 29an arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Santos Etxegia, Xabier Azpiroz, Julen Beunza, Olatz Dorai eta Ricardo Arangoa.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.

2019ko abenduko ohiko batzarreko akta, deialdiarekin batera bidali da eta bildutakoek aho batez onartzen dute.

2.- Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

- 2020/1 alkate ebazpena urtarrilaren 3koa Muebles Pascuali zuzendua onartuz, Muebles Pascual enpresak aurkeztutako 190000006 zenbakidun aurrekontua, 578,01 euro BEZ barne euroko, botikako etxebizitzan hozkailua eta arropa garbigailua aldatzeko.

- 2020/2 alkate ebazpena urtarrilaren 27koa Aralar Musika Eskolari zuzendua Baimena emanaz Aralar Musika Eskolari otsailaren 19an Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko arratsaldeko 15.00tatik aurrera 'Perkusio eta Saxofoi Audizioa' egiteko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

3.- Basanet elkarte merkantileko karguak utzi eta kargu berriak izendatu.

Alkateak azaltzen du elkarte merkantilaren eskriturak berritzeko eta kontutan hartuta elkarteko bazkide bakarra Basaburuko Udala dela, ikusita estatutuen 17. artikuluan zehazten dela elkarteko kontseilariak 5 izanen direla eta ikusita irailaren 12an 7 izandatu zirela elkarte merkantileko kontseiluan, Basaburuko udal batzarrak onartu behar du izendatuen karguak uztea eta 17. artikulua arabera 5 kontseilari izendatu. Eskritura sinatzen den egunean eta notarioaren aurrean, karguak banatuko dira eta lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria eta bokalak izendatuko dira.

Hortaz hau kontutan hartuta, bildutakoek ondoren zehazten den akordioa onartzen dute aho batez:

- Basanet elkarte merkantilerako 2019ko irailaren 12an, izendatutako 7 kontseilariak eta lehendakaria, hots Esther Lakasta Perez Ilzarbe, Francisco Javier Azpiroz Latasa, M^a del Mar Ansorena Sala, Santos Etxegia Oronoz, Olatz Dorai Urritza, Ricardo Arangoa Legarra eta Julen Beunza Arano, bere kargutik kendu.

- Basanet Elkarte merkantilaren kontseilurako, elkarteko 17. Artikuluaren arabera hauek izendatu: Esther Lakasta Perez Ilzarbe, Francisco Javier Azpiroz Latasa, Santos Etxegia Oronoz, Ricardo Arangoa Legarra eta Julen Beunza Arano.

4.-Moziok

Alkateak adierazten du bi mozio daudela aztertzeko, lehenengoa, EH Bildutik proposatutakoa urtarrilaren 30eko grebara deialdia eginaz.

Transkribatzen da alkateak irakurtzen duen moziua:

“Lan- pentsio- bizitza-duinaren aldeko greba babesteko ebazpen proposamena.

Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugari herritarren eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu zuten, prozesu parte-hartzaile baten bidez. Orduz geroztik eskubide horien aldeko ekimenak antolatu ditu.

Bestetik, Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pentsio duinen alde astero mobilizatzen; bide horretan, pentsioen eremuaz gaindi, modu zabalagoan “planto” egiteko beharra plazaratu dute, euren aldarrietatik harago joateko asmoz.

Orain, aipatu planteamenduaren haritik, mugimendu bien arteko konfluentzia eman da, pentsiodunen eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa, alegia, lan baldintza, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokari aurre egiteko.

Konbentzimendu hirukoitz batek batu ditu: batetik, pentsioena denon afera da, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa da; azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira. Finean, bestelako eredu sozio-produktiboa eraiki behar dugu, bizitza erdigunean jartzeko, zaintzari eta planetaren jasangarritasunari lehentasuna emanaz.

Ezarriak dituen ardatz nagusiekin bat egiten dugu, alegia: aberastasunaren birbanaketa, sektore publikoaren lidergoa, eskubideen unibertsaltasuna, euskararen normalizazioa, lurraldeen arteko oreka, jendartearen beharren arabera antolakuntza (lehen sektorea, azpiegiturak, merkantzien eta garraio sektorea...).

Horregatik, Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat eginez, ondorengo ebazpen proposamena aurkezten dugu.

EBAZPEN PROPOSAMENA

Horiek horrela, Basaburuko Udalak adosten du:

1.- Lan- pentsio- eta bizitza-duinaren aldeko grebari bere atxikimendua adierazi nahi die.

2.- Lan- pentsio- eta bizitza-duinaren aldeko greba egin ahal izateko erraztasunak eskainiko dizkie Erakundeko langileei.

3.- Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Adarrikapen Taularekin bat egiten du, eta horregatik

3.1. Madrilgo Gobernuari eskatzen dio:

2011 eta 2013ko erreformetan onetsitako pentsio-murrizketak indargabetzea.

Zapateroren eta Raxoiren lan-erreformak bertan behera uztea.

Presazko izaeraz Seguritate Sozialaren eta Enplegurako Politika Pasiboen gaineko eskumenak transferi ditzala.

3.2. Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko neurriak presazko izaeraz ezar ditzatela.
- Hileko 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzeko neurriak abiatu ditzatela.
- Hitzarmen kolektiboetan ultraktibitate mugagabea eta herrialdeko hitzarmenen aplikazioa estatu mailako hitzarmenen gainetik lehenetsiak izan daitezen sustapen lana burutu dezatela.
- Lanera bizirik itzultzeko eskubidea bermatzea.
- Lan Ikuskaritzako plantillak handitzea, Europar Batasunekoekin parekatu arte, eta lan-istripuen eta laneko gaixotasunen aurkako ekintza planak abiatzea.

- Lan-harremanetarako eta babes-sozialerako esparru propioaren aldeko neurriak abiatzea.

3.3. Nafarroako Gobernuari eskatzen die

- Gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakala eta pentsio-arrakala amaitzeko neurri zehatzak aktibatu ditzatela.
- Enplegu egonkorra sustatzea eta kontratazioan ematen den iruzurra zigortzea.
- Soldata gutxitu gabe lanaldia 35 ordura jaisteko neurriak abiatzea.
- Bereziki emakumeei ezartzen zaizkien lanaldi partzial inposatuak ezabatzea.
- Zerbitzu publikoak garatzea, ezarritako murrizketak atzera botatzearekin batera.
- Kontratazioan sexuaren, jatorriaren, ideologiaren, sexu-identitatearen, aniztasun funtzionalaren edo ekonomia-jardueraren arabera diskriminaziorik egingo ez dela bermatzea.
- Klausula sozialak ezartzea administrazioko kontratazio guztietan.

4.- Gure Erakundearen adostutako ebazpen hau Nafarroako Gobernuari eta Euskal Herriko Karta Sozialari helaraziko zaie. “

Bildutakoek aho batez onartzen dute mozioa.

Ondoren bigarren mozioa irakurtzen da, NUKFetik bidalitakoa, Orkoiengo eraso sexistaren inguruan, Orkoiengo udalari atxikimendua adieraziz.

Ondoren transkribatzen da mozioa:

Orkoiengo Udaleko talde politiko guztiek, gure herrian emakume baten aurka izan den indarkeria kasu berri baten aurrean,

Hau adierazten dugu:

- Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa da, eta emakumeen oinarritzko askatasunei erasotzen die. Erasotze horiek gizonak emakumeen gainetik jartzen dituzten botere-harremanetan oinarritzen dira, eta emakumeak gizonekiko mendetasun-egoeran bizitzea dute helburu, beldurrak sortuz.

Horregatik, erabaki dugu:

- Erasoa jasan duen emakumeari gure elkartasuna eta babesa adieraztea. Kalea, gaua, eguna pertsona guztien gozamenerako dira, eta emakumeek beldurrik gabe okupatzeko eskubidea dute. Ezerk ez du justifikatzen emakumeek beren askatasuna eta segurtasuna galtzea. Emakumeek beren harremanei, gorputzari eta sexualitateari buruz erabakitzeke duten eskubidea aldarrikatzen dugu.

- Sexu-eraso honen eta, oro har, gure gizartean gertatzen den edozein motatako eraso, indarkeria edo jarrera sexistaren aurkako gaitzespena berrestea.

Horregatik -Berdintasun Politikak bultzatuz- konpromisoa hartzen dugu emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko, segurtasuna hobetzeko eta ingurune guztietan emakumeen askatasuna erabat gauzatzen dela bermatzeko lanean jarraitzeko.

- Herritarrei eskatzea emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean axolagabe ez egoteko eta tolerantzia eta inpunitate zero jarrera izateko, eraso matxisten aurrean erantzukizun indibidual eta kolektiboa hartuz.
- • Atxikitzea eta herritarrak animatzea arrazoi hori dela-eta deitzen diren protesta eta arbuio-ekitaldietan parte hartzera.
- • Orkoiengo Udala bezala prozesu judizialean pertsonatzea.

Bildutakoek aho batez bat egiten dute adierazpenarekin eta atxikipen hau Orkoiengo udalari jakinaraztea erabaki dute.

5.- Batzordeen informazioa.

- Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Fibra jartzeko obra bukatu da. Otsailaren 13an egingen da udal planaren berriskupenaren aurkezpena eta kontzejuetako lehendakariak deituko dira aurkezpenera. Ondoren, kontzejuetan egingen dira aurkezpen bilerak.

-Kultura – Euskara Batzordea. Olatz Doraik ematen du informazioa.

Martxoaren 14an Bardoak Bertso Txapelketaren final aurrekoa Apeztegi berrin burutuko da, 19etan.

Otsailaren 4an Santa Ageda ospatzeko, Orokieta, Ola, Erbiti eta Gartzaronen ibiliko dira kantuz.

Bertso afariaren oso balorazio positiboa egin zen.

-Kirol Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa.

Martxoaren 7an ospatuko da Gartzarongo VII Duatloia, 16etan eta Maiatzaren 17an urteroko BTT txapelketa.

-Komunikazio Batzordea. Esther Lakastak ematen du informazioa.

I-Ametzak egindako web gunearen egokitzapenaren proposamena aztertu zen batzordean eta zuzenketak egin ziren.

- Hezkuntza Batzordea. Esther Lakastak ematen du informazioa.

Eskolako patioa berritzeko Sumalim enpresarekin bisita egin da, fase desberdinetan berritu behar denez, 1. faserako parkeko elementu bat (Zabua) aldatuko da. Ostiralean beste empresa batekin egingen da bisita, empresa horri aholkularitza teknikoa eskatuko zaio du eta aurkeztuko zaio batzordearen proposamena. Egin behar diren zenbait berrikuntza udan kontratatzen diren langileekin egingen dira.

- Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.

1. sektorearen egoera aztertzen jarraituko da. Cedernak kontratatu behar zuen langile berria oraindik ez da lanean hasi, aurreko zerrendatetik kontratatuko dela adierazten da, ez berriro zerrendak eginaz.

6.- Informazio orokorra.

- Nafarroko Kirol Institutoko zuzendari orokorraren 2019/25E ebazpena. Adinduen osasun programen dirulaguntza onartuz eta 2019-2020 ikasturterako 1. zatiaren ordainketa aginduz, 506,57 eurokoa.

- Osasun Departamentua Afektibo sexual programaren barruan onartutako dirulaguntzaren ordainketa agindua 770 eurokoa.

- Euskarabidea. 2019an Euskara bultzatzeko programaren dirulaguntzaren ordainketa 3.697,20 eurokoa. Dirulaguntza hau UEMAren ekarpenarekin justifikatzen da.

- Osasun Departamentua, 2019/1167 ebaqzpena 2019ko Osasun Programen ordainketa onartuz 2496.26 euro, emakumeen eta ume eta gazteen osasuna bultzatzeko programetarako.

- Osasun Departamentua 2020/5 ebazpena , Adinduen osasun programaren dirulaguntzaren ordainketa aginduz, 1.707 euro.

7.-Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez arratsaldeko 19:50 ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.